

56 2020KO EKAINA 3,0€

HOR DAGO!

HAUR BESOETAKOA
BASOLATIK BERRI ONIK EZ
SASI ARTEAN ELGETA
GASTON

ISSN 2530-2485



56

9 772530 248009




GOIA JO
NAHI BADUZU
IZAN ZAITEZ
HARPIDEDUN!




ALBISTEAK IGOR LETURIA

KANPOALDEAN ETA SAMALDAN, REAS EUSKADIK ETA OXFAM INTERMONEK ARGITARATUTAKO KOMIKI BANA
KOMUNITATE AUTOANTOLATUEI BURUZKOA LEHENA ETA BIZKAIAN BIZI DIREN ETXETAKO ETA ZAINKETAKO EMAKUME LANGILE NIKARAGUARREI BURUZKOA BESTEA Irabazi asmorik gabeko elkarteek euren mezua zabaltzeko komikia gero eta gehiago darabilten erakusgarri, bi lan berri hauek. **Susanna Martinek Oxfam Intermón** elkartearen enkarguz egin du **Samaldan**, eta Bizkaian etxeko eta zainketa lanetan aritzen diren Nikaraguako emakumeen errealitate gogorra kontatzen du.



Kanpoaldean REAS Euskadi elkarteak atera du, **Al Borge Films**-en gidioarekin eta **Amaia Ballesteros**en irudiekin, eta sistema kapitalistari aurre eginez beste ekoizpen- eta kontsumo-modu batzuk praktikatzeko dituzten auzo autogestionatuei buruzkoa da. Beraien webguneetatik doan deskarga daitezke.



MATEMATIKAKO ETA INFORMATIKAKO APARTEKO ISTORIOAK KOMIKIAN, SAURÉREN ITZULERA
HISTORIAKO MATEMATIKARI ETA INFORMATIKARI EZAGUNENEN AURKIKUNTZAK ETA BIZITZAK **Sauré** zen duela urte batzuk euskarazko komiki gehien egiten zituen argitaletxea, bereziki helburu eta gai hezitzaileekin, 2014 inguruan bat-batean desagertu zen arte. Orain ere bat-batean berragertu da, linea bereko komiki batekin: 2018an Frantzian



publikatu zen **Nesim Fintz** eta **Han-Mi Kim** egileen **Matematikako eta informatikako aparteoko istorioak komikian**. Izenburuak dioen bezala, komikia baliatuz ezagutarazi nahi dizkie gazteei matematika eta informatikaren historian izan diren aurkikuntza nagusiak eta pertsona garrantzitsuenen bizitzak.

KOBANE CALLING EUSKARAZI! ZEROCALCAREN LAN EZAGUNA GURE HIZKUNTZAN GOZATZEKO AUKERA, FARMAZIA BELTZA ETXEARI ESKER

2018an **Farmazia Beltza** etxeak Zerocalcare komikigile italiar ezagunaren **Hondamuienean** lana argitaratu zuen eta 2019an haren jarraipena, **Hondamuienean - Sei hilabete geroago**. Biak, gainera, jatorrizko italiarazko bertsioa atera eta gutxiira, eta beste hizkuntza boteretsuago askotan baino lehenago. Luxua! Oraingoan, beharbada egilearen lanik ezagun eta goretienetakoa dena dakarkigu, **Kobane Calling**. 2016koa da komiki hau, orain eduki gehigarriarekin berrargitaratu dutena, eta berrargitaratze horrekin batera ekarri dute euskarara.

Kobane calling-ek kurduen zapalkuntza eta askapenerako borroka dakarkigu egileak Siriako gerraren garaian Rojavara (Siriako Kurdistango lurralde autonomoa) egindako bidaia baten bidez, ISISek Kobane hiria inguratuta zuenean. Kontu gogor baina ezagutu beharreko hauek berarengan ohikoa den umore puntuarekin kontatzen ditu



Zerocalcarek, lan jakingarri bezain entretenigarria eginez. Berrargitaratze honetan bi istorio berri daude.

BUYAN, ORAIN APP-EAN! PAPERREZKO KOMIKIAK AHALBIDETZEN DUENAZ HARAGOKO EFEKTUEKIN
Abenduan eman genizuen **Buyan - Heriotzaren uhartea** komikiaren berri, **Etxeberria anaien** eta **Aritz Truebak** egindakoa. AEBtan eta Frantzian argitaratu zen, eta baita euskaraz ere, autoedizioan. Bada, orain Android telefono mugikorrenzako aplikazio edo app formatuan publikatu dute, **Josu Igao** taldeko laugarren kidearen eskutik. Paperezkoak uzten ez duen hainbat gauza ditu: mapa interaktiboa, aurkibidea, hizkuntza-aldaketa, efektuak, gailuaren sentsoreen bidezko animazioak, glosarioa... Komikiak gozatzeko beste modu bat, etorkizuneko modua, beharbada.

LAINOMEHE ETA KINTON, BI WEBGUNE INTERESGARRI KOMIKIEN INGURUKO INFORMAZIOA EMATEAZ GAIN, KOMIKIAK EUSKARTZEN DITUZTE
Azken urteetan ugaritu egin dira sarean euskarazko komikiei buruzko informazioa ematen duten guneak: **Mikel Begoñaren Komikeri** blog bikaina, **Iñaki Otamendik** sortutako **Komikipedia** aparta... Bada, beste biren berri ematera nator oraingoan. **LainoMehe** webgunean albisteak aurkituko ditugu eta baita artikulua gutiz ezinbesteko bi: **Asterix**en eta **Tintin**en euskarazko argitalpenen kronologiekin egindako artikulua bana. Baina horrez gain, hainbat komiki daude bertan formatu digitalean deskargatzeko moduan. Argitaratuak

izan diren kasuan, eskaneatutako orri batzuk daude komikia erosteko estekaren alboan, eta beste batzuk beraiek euskaratutakoak dira. **Tintin, Dragoi Bola, Dr. Slump, Akira, Calvin and Hobbes, Moebius, Paco Roca...** Benetako altxorra!
Kinton Manga-Komikiak webguneari dagokionez, bere izenagatik asma daitekeenez, manga eta zehazkiago



Dragoi Bolaren zale batek egina da. Euskarara ekartzen ari da **Dragoi Bola Super** manga-komikien saila, eta momentuz lehenengo zortzi atalak daude eskuragarri, baina gehiago jartzeko asmoa du. Ongi etorriak!

EUSKAL KOMIKIGILEAK FRANTZIAN ARGITARATZEN

ARTHUS TRIVIMUM 4, SPECIMEN, MIGUEL MARMOL, AH, ÇA IRA!...
Azken aldian **Xabiroi**ko hainbat kolaboratzailek kaleratu dituzte komikiak Frantzian, argitaletxe eta lankide entzutetsuekin, gainera. **Juan Luis Landak Arthus Trivium** seriea marrazten jarraitzen du **Dargaud**entzat **Rauléren** gidioarekin. Jada 4. tomoa atera dute, **L'armée invisible**, aurrekoak bezala hau ere oso arrakastatsua, eta gaztelaniaz ere atera duena **Normak**.



Julen Ribasek bi publikatu ditu azken hilabeteetan: batetik, **Le Spécimen**, **Walter Hill** eta **Matz**-en gidioarekin **Rue de Sèvres** etxearentzat, eta



bestetik, **Ah, ça ira!** seriearen lehen tomoa, **Le pain et la poudre**, **Delcourt**entzat eta **Morvan** ezagunaren gidioarekin; azken honetan, gainera **Sanvi** eta **Sedyasek** ere hartu dute parte. Eta azkenik, **Dani Fanok Rackham** argitaletxearekin atera du **Les douze naissances de Miguel Mármol**. Zorionak denei, eta segi horrela!



03 **AUZOMORRO**
Sanvi

06 **HAUR BESOETAKOA**
Unai Iturriaga eta Sanvi



12 **ARRANOTXU**
ZaldiEroa

14 **KOMIKITAUN elkarriketa**
Gregorio Muro eta Alex Macho



16 **ZOOLA3KA**
Manu Ortega, Exprai, Asisko


17 **BASOLATIK BERRI ONIK EZ**
Asisko eta Joseba Larratxe

25 **SASI ARTEAN ELGETA**
Koldo Izaguirre, Dani Fano eta Garluk



31 **PANDEMIAREN UDARA**
Gaston

HURRENGO ZENBAKIA
2020KO URRIAN!









HEMEN
DENEK
KANTATZEN
DUTE!



ZEUK BAKARRIK KANTATUKO
DUZU EDO AKONPAINAMENDUA
BEHARKO DUZU?

ORAIN
EZ ZAIT
BURURATZEN...



ZURE
LAGUNTXOA
HASI DA...
ETA ZU?

ILARGIA LAPITZKONURKE GABEBOZ.

HEMENDIK
ETA MEXIKORA
4000 KM
DITUZUE.

**EZ
GERATU
EZTA PIXA
EGITEKO
ERE!**

KATEDRAL
BAT EGIHN...







GU HEMEN
TXOKOETAN
ANTOLATZEN
GARA.

ZATOZ!



SORMEN TXOKOA.
ADIERAZPEN LIBREAREN
BITARTEZ, GURE KAUSAREN
ALDEKO MEZUAK
IRUDIAK SORTZEN
DITUGU.



MATEMATIKEN TXOKOA.
GURE KAUSAREN ALDE
MERKATU BELTZEAN SALTZEN
DUGUN SAKARINA, INULINA ETA
NEHOSPERIDINAREN ETEKINAK
KALKULATZEN DITUGU.



TXOKO ZURIA.
KALEAN "AURKITZEN"
DITUGUN GAUZAK
HEMENTXE BILTZEN DITUGU.
GERORA GEURE KAUSAREN
ALDE ERABILIKO
DITUGU, JAKINA.



PENTSATZEKO TXOKOA.
AUTOKRITIKA EGIN OSTEAN
HEMEN EGON BEHAR
DUTE AIMASADEKOEKIN
KOLABORATU IZANAREN
GUSMOPEAN DAUDENAK.



ZER DA
AIMASAD?

AIMEN*
INTELIGENTZIA
ETA KONTRA-
ESPLOITZARAKO
AGENTZIA.

GURE
ETSAI
NAGUSIA.

*AIMA: AITA ETA AMA HITZEN BATURA.
UGALKETARA BIDERATUTAKO IZAKIAK.



HB ETA ZURE
ATZETIK DABILTZA
HIRITIK IHES EGIN
ZENUTENETIK...


...BAINA
ORAIN
AURRE
EGITEKO
PRESTATUTA
GAUDE.



?

AIMASAAAAAD!!







ARRANOTXU

Euskal Gerlari Mitikoa







**GREGORIO MURO
HARRIET**



**ALEX
MACHO**

“KOMIKI HAU BOTEREAREKIN KRITIKOA DA”

1898ko Filipinetako Independentzia gerra lehenbizi, eta haren ondoren AEBen aurkako gudan estatubatuarrek egin zuten genozidioa. Bi gerren kontakizuna egiten du ‘Lotsa eta ahaztea’ komikiak. Bizkaiko bi anaien bidez kontatu dute istorioa Gregorio Muro *Harriet* gidoilariak, Alex Macho marrazkilariak eta Ekaitz Agirre *Garluk* koloristak. Komikigintzara itzuli da Harriet album honekin, eta Macho zein Garlukentzat, berriz, lehen lan luzea da.

Testua: **Lander Muñagorri Garmendia**

Nola sortu zen proiektua?

HARRIET: 1980ko hamarkadan, Luis Astrainekin batera Filipinetako independentzia gerraren historia kontatzen hasi ginen, baina ez genuen amaitzerik izan. Hasierako altxamenduekin hasita amaieraraino iritsi nahi genuen, hau da, gehien interesatzen zitzaidan momenturaino. Ez zen posible izan, eta beti eduki dut arantza hori sartuta. Beraz, esan daiteke ez dela izan orain sortutako istorio bat. Egun batean Alex ezagutu nuen, eta proiektu berri batekin hasteko hainbat istorio proposatu nizkion, eta hau izan zen gehien gustatu zitzaiona.

ALEX: Orain arte animazioan eta ilustrazioan egin dut lan, baina sekula ez nintzen komikiaren munduan erabat sartu. Gregoriorekin ideia hori aipatu nuenean animatzen hasi nintzen, eta Angulemak azokara gidoia aurkeztera joan ginenean Glenat argitaletxeak interesa erakutsi zuen. Horrek are gehiago animatu ninduen istorioan barneratzera.

Zergatik Filipinetako Independentzia gerra?

HARRIET: 1980ko hamarkadan nazionalismoari buruzko hausnarketak

egiten saiatu nintzen, baina euskal abertzaletasunetatik aparte nazionalismoa buruzko googetak. Horregatik abiatu nuen Simon Besaluzeren istorioa. Bertan, Filipinetara ihes egiten duen pilotari baten gorabeherak kontatzen ziren, eta hango mugimendu independentisten lekuko izango da. Baina Filipinetako gerran nazionalismoa gain, inperialismoa ere egon zen. Areago, gaur egungo inperialismo iparamerikarraren hastapena markatzen du guda horrek. Siouxak garaitu zituzten,

HARRIET: “Egungo inperialismo iparamerikarraren hastapena markatzen du guda honek.”

eta horrekin nahikoa ez, eta mundua menderatzeko asmotan atera ziren atzerrira. Hori guztia kontatu nahi nuen istorio haren bidez: herrialde batetik askatzeko nahia duen nazionalismoa, eta beste herrialdeak menderatzeko inperialismo grina. Eta hori guztia zapalduak dauden pertsonen ikuspegitik landu nahi izan nuen. Orain, hasierako asmo hori amaitu ahal izan dut.

Zu, Alex, zerk erakarri zintuen istorio honetatik?

ALEX: Istorioak karga pertsonal handia dauka, testuinguruaren pisu hori guztia aparte utzita. Pertsonaia denak saiatzen dira bizimodua aurrera ateratzen, eta horrek arreta deitu zidan. Itzela iruditu zitzaidan, eta oraindik ere marrazteko gogo sortuko lidakeen istorio bat da.

Komikiaren azaletik bertatik sumatzen da gerrari buruzko komiki bat dela, Jose eta Felix anaiak agertzen baitira soldaduz jantzita. Baina ondoren izenburua irakurri, eta gerraren aurkako istorio bat dela ondorioztatu daiteke berehala.

HARRIET: Hala da, bai. Baina komikia batez ere boterearekin da kritikoa. Nire aurreko lanetan boterearekiko kritika oso ohikoa izan da, baina kasu honetan gerraren testuinguruan egokitu dut, botereak orduan erakusten baitu gehien bere indarra: agintariak beste pertsona bat hiltzeko boterea baitaukate orduan. Komikian ere erakusten da gerra bat zein absurdoa izan daitekeen, une batean hala esaten baitu teniente batek: “Gure balak askoz ere humanitarioagoak dira”. Hori dio etsaiek punta biguneko balak



jaurtitzen dituztelako, eta horiek gorputzean txikizio handiagoa eragiten dutelako. Hori da gerraren absurdoa. Bala bat izan al daiteke humanitarioagoa? Ez al dute, bada, berdin hiltzen? Okerrena da aipamen hori erreala dela, dokumentatuta dago teniente espainiar batek hori idatzi zuela.

Komikian dokumentazio lan handia egon dela sumatzen da, bai gidoia idazterakoan, eta baita marrazterakoan ere. Nolakoa izan da prozesu hori?

HARRIET: Alexentzat okerragoa izan da, nik idazten nuena berak marraztu beharra baitzeukan. Hala ere, gidoia idazterako erabili nuen dokumentazioan ilustratzeko elementuak topatzen nituenean, Alexi pasatzen nizkion. Dena den, berak bere ikerketa propioa egin behar izan du, nik pentsatu gabeko gauza asko marraztu behar izan dituelako.

ALEX: "Marraztu behar dudana nire etxea bezala ezagutu behar dut."

ALEX: Kasu honetan dokumentazioa beharrezkoa da, gidoiak grafikoki asko eskatzen baitzuen. Gregoriok gidoia bidaltzean beharrezkoa zela uste zuen dokumentazioa txertatzen zidan, eta hori sekulako laguntza izan da. Baina, horrez gain, nik nire dokumentazio propioa behar izan dut, ingurune horretan eroso sentitzeko. Marraztu behar dudana nire etxea bezala ezagutu behar dut, karga grafiko hori ez dadin piztutsua izan.

Eta puntu horretaraino iritsi zara?

ALEX: Bai, batez ere protagonistak setiatuta dauden elizarekin gertatu zait hori. Azkenetako, harriz harri nekien nolakoa zen eliza hori, eta begiratu beharrik gabe banekien nola marraztu behar nuen perspektiba bakoitzetik. Hor barruan gustura moldatu naiz, eta hori oso garrantzitsua izan ohi da niretzat istorio batean sartzeko.

HARRIET: 1980ko hamarkadan dokumentazioaren arloa asko lantzen genuen, eta horretarako liburutegietara joan behar izaten genuen. Orain Internetekin sekulakoa da lortu dezakezuna. Pentsa, momentu batean pertsonaiek elizatik errekarera ateratzea, eta bide hori nolakoa izango zen irudikatzen Google Earth aplikazioarekin leku horretara joan ginen. Puntu horretaraino ezagutu dugu komikiko testuingurua.

Komikian gerra dago, ipar amerikarren krudelkeria, eta Filipinetan egin zuten genozidioa. XIX. mende amaieran kokatuta dagoen arren, istorioa gaur egunera ekarri daiteke?

HARRIET: Edozer gauza estrapolatu daiteke, botere ariketa bat delako. Bertan XX. mendeko lehen genozidioa izan zena salatzen dugu, hiru urtean hiru milioi pertsona hil zituzten estatubatuarrek. Eurak izan ziren kontzentrazio eremuak sortu zituzten lehenak, ez ziren naziak izan.

ALEX: Estatubatuarrek dena errez sartu ziren Filipinetan. Ez dakit hori gaur egunera ekarri daitekeen, baina botereak beste modu batean egin dezake gauza berdina. Komikian argi azaltzen da botereak hiltzen duela, eta pertsonaia uneoro bizirauten saiatzen ari direla. Inork ez du esaten aberriagatik hilko denik.

Esan liteke Lotsa eta ahaztea komiki berezia dela zuontzat biontzat: Gregorio, zuretzat komikigintzara itzuli zarelako, eta Alexentzat lehen komiki luzea delako...

ALEX: Niretzat presio handia izan da, baina era berean zoragarria. 24 orduz zerbaitetan oso pozik lan egitea oso esker onekoa da, lan lotua izan badaiteke ere. Aurten Angulemakomiki azokan egon garenean, Frantziako



LOTSA ETA AHAZTEA

Harriet, Alex Macho eta Garluk

Arg. Harriet ediciones

112 orri | 26€

jendearen erantzuna harrigarria izan da. Jendea inguratu zitzaigun istorioa ezagutzen zuelako, eta hori oso aberasgarria da.

HARRIET: Pentsa, Herbehereetatik etorri zitzaigun jendea nederlanderazko bertsioa sinatzeko. Horrek zure egoa elikatzen du, eta hori asko eskertzen da.

Zergatik itzuli zara komikigintzara?

HARRIET: Aurrez hausnartutako zerbait izan zen, egia esan. Frantzia eta Espainian nire komiki zahar bat berrargitaratu zuten, Eguzkiaren izerdia, eta horren eraginez Getxoko komiki azokara joan nintzen komikiak sinatzera. Ordura arte sekula egon gabea nintzen, eta 1980ko hamarkadan jarraitzen ninduen publiko batekin egin nuen topo bertan. Erretiroaren atarian nengo, eta gelditu egoteko gogorik ez neukanez, pentsatu nuen komikiak egitera itzuli behar nuela. Itzulera hori planifikatzen hasi nintzen, eta horretarako iraganeko komikiak berrargitaratzeari ekin nion Harriet Ediciones sortuz. Alex ezagutu nuen, eta Lotsa eta ahaztea proiektua abiatu genuen. Orain beste batekin ari gara lanean: Tropikoko berotasunetik Siberiako hotzera egingo dugu salto.


Baduzue beste proiektu bat martxan.

ALEX: Bai, lanean ari gara beste komiki batean. Lotsa eta ahaztea lanean bezala, Ekaitz Agirre Garluk ere gurekin dago, sekulako ekarpena egin du istorio honetan. Talde polita sortu dugula iruditzen zait.

HARRIET: Nik gidoia idazterakoan beti pentsatzen dut nola marraztuko nukeen, eta testua bidali ondoren marraztua eta koloreztatua itzultzen didatenean beti harritzen naiz. Garlukek sekulako berotasuna eman dio komiki honi, gustura egin dugu lan. Eta hori horrela denean, irakurleak sumatu egiten du.



ZOOLA 3 KA



BAS LATIK BERRI ONIK EZ

Gidoia Asisko
Irudiak Joseba Larratxe



AMORE EMAN...

ATARIAK IREKI...

ETA LEKUAK HUTS
DITZAGULA...?



BIZIA ETA ONDASUNAK
SALBU DITUZKEZUE.



ETA BESTELA...?



KENDU
DIGUZUENA BERDIN
BERRESKURATUKO
DUGU...



DAMU-DOMAIK
PARTEKATURIK.

EZKILA JOTZERA NOA,
ETA ENE BISTA ZIKINTZEN
BALDIN BADARRAIZUE,
BAT EGINEN DIZKIZUET
AHO-MOTZAK!



GERLARAKO
PRESTATZEN
ARI BAGINEN...

GERLA BERTAN
DAUKAGU!



GERLA SARTALDEKO ATARITIK

DANBALA! DANBALA! DANBALA! DANBALA! DANBALA! DANBALA! DANBALA!

SANTIAGO!

SANTIAGO
Y CIERRA,
ESPAÑA!

NAFARROA!

GARAZI!

OZTIBARRE!

OZTIBARRE!

GERLA SORTALDEKOTIK

URDAXPAL!

AEZKOA!

AEZKOA!

GERLA OLAREN
ERRAIETAN BARRENA











BASOA NAGUSITU ZITZAION OLARI, ETA
BERTAN EHORTZI SU-ARMETAKO BASTIOIA,
ETA JENDE LIBREEN ERREPUBLIKA...

ETA MUNDO ZAHARREKO
ORKAITZAK, ETA NORK DAKI ZENBAT
XEDE ETA MENTURA GEHIAGO...



HALA ERE, DENA(K) EZ Z(IR)EN
ORDUKO HARTAN GALDU, ETA
BADAGO ERRATEN DUENIK ERE
LURPEKO LABETZAR HAIETAN
BASOLAKO SUA EZ DAGOELA
ERABAT ITZALIRIK...

ETA ZENBAITZUTAN ADITU ERE
EGITEN OMEN DIRA OLARIAK,
HAIEN LANGINTZAN ARTOSKI

TAUP-TAUP, TAUP-TAUP, TAUP-TAUP...



AMAIERA

Sasi artean Elgeta

LARROSA GORRI-GORRI
EDERTZEN ORTUA
ERREPUBLIKA EDERTZEN
ANDRAREN BOTUA.

BOTUA... ORTUA
... ETA ORTUAN
LARROSA!

EZ DOZU
EZEBE
ULERTU,
JAXINTO.

GU EZ GAGOZ
ERREPUBLIKA
EDERTUTEKO!

EKARRI
SOINU
HORI!

PINOIA
ALDATU
BEHAR,
EZ DAGO
BESTERIK!

Munduak bihar dau laster
andraren botua:
libre izateko da
askatzen lotua

EL ESTUDIANTE POBRE TENDRÁ
ACCESO Y PROTECCIÓN EN LA
UNIVERSIDAD VASCA
SI VOTAS EL ESTATUTO

ETA ANDROK
ZUEN
NESKAME.



LAGUN GUZTIXAK
GALDUKO DITTUDAZ
TIROKA ETA
IHESIAN ETA
KARTZELIAN...




... ETA ERREPUBLIKA
KENDUTEN BADESKUEZ,
ZELAN EGINGO DOGU
AMOR LIBRIA ETA
DANTZA LOTUA?

AI, AKILINO
AMUATEGI, HEMEN
BAZENGOZE GU
GIDATZEKO!


GOGOR EGIN
BEHAR DOGU,
JAXINTO,
EZ NEGAR.

ZEU LAKO
ARTISTIAK BIHAR
DAUZ HERRIXAK,
BERBA GITXI ETA
ESAN ASKO.

ERREBOLUZINOA
ETORRIKO
DA BARRIZ...
ETA DANTZA
BE LIBRIA
ESTU-ESTU!









LUZIFER!
LUZIFER!

NI KARTZELIAN
EZ SARTZEKO
EMON DABE
AMNISTIA.



GU ZULOA
EGITEKO
ETORRI ETA...

...HEUK ATE
NAGUSITIK
URTEN!

LUX ET
VERITAS!



ZER MODUZ
MORROILOPE,
LUXIPER!

ZUEK
HEMEN?



ERREBOLU-
ZINORAKO
ENTRENATZEN!



BONUM VINUM
ET AVANTI
POPOLO!


HI, LUZIFER,
NON EGON HAIZ,
KARTZELIAN ALA
KOMENTUAN?

Ez egon lo
ez egon lo
ez egon lo, lo, lo...
loturak askatu
Egon erne
egon erne
egon erne, ne, ne...
neskak neskaz batu



Aaaaa... Ekama...
Goxoa, horratik, etorbideko
ezkien usaina!


BETI BEI
TABERN



Kaiku enteroa zara, gero!
"Ezkiek usaina!"



Bizi dugun egoeran
dotokeriatan!




Eta zuk, ez al zenuen,
bada, atzo esan
txakolinak kantauriko
lanbroaren kresal
usaina dakarkizula?

BETI BEI
TABERN



Hara, bestea! Ez dugu,
bada, aparteko txakolin
bat ezki zikin horiekin
konparatuko ezta?



AMETS ALOKATUAK

Harkaitz Cano Iñaki Holgado

Etorkizun hurbil batean,
jendeak bere gau horretako ametsak
alokatuko ditu, orain hoteleko gela
bat hartzen duenak bezala...

*Liburudendetan
salgai!*



Base Sekretuan
XABIROI besterik
ez dugu irakurtzen!!

**Izan zaitez
XABIROIko harpidedun!**

Lau zenbaki urtean.
12 euro bidalketa gastuak barne.

Harpidetu www.xabiroi.eus gure web gunean edo
bete beheko inprimakia –eskaneatu edo argazkia atera–
eta bidali info@xabiroi.ikastola.eus helbidera, edo moztu
inprimaki hau eta bidali posta arruntaz gure helbidera:

Ikastolen Elkartea - XABIROI (Errotazar bidea 126, 20018 Donostia)

XABIROIren harpidedun izan nahi dut. 4 zenbaki urtero 12 euroren truke.

Izen-abizenak

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonoa

e-mail

N.A./I.F.K.

Banku kontuaren IBAN zenbakia

Harpidedunak aurkakoa esan ezean, **XABIROI**k urtero luzatuko du harpidetza, eta dagokion harpidetza-kuota kobratuko zaio harpidedunari.

